

**BIZKAITARRAI
BIZKAIERAZ
85n. ZENBAKIA
JORRAILLA
(APRILLA)
1985**



**URKIOLA'n
IZADIA ISILLIK**

OLERKARI

UDABARRI-UDABARRI

Uda barri eldu da
bai gaurkoan,
loratxoak usaintsu
baratzean.

Txoritxuak txioka
adarretan,
txoriak abeslari
or ondoan.

Txipilleta polita
margoetan,
Bildotsak triskalari,
zelaietan.

Basoko orri danak
maite mozuz
aixearen indarraz
danak kantuz.

Odol bero beroa
biotzetan,
Bedar bigun barria
or Intxortan.

Eguzkia drizdrizka,
Udala aitzan,
Odeitxo arin-arin,
an goietan.

Arraiñak igirian
ur garbitan
Buruzgainka astoak
mendi maldan.

Lugiñak asi dira
lur lanketan,
Umetxoak txillioz
jolasean.

Maitailleak maitetsu
zugazpean,
Izadia guztia
soñuetan.

Dana da berbiztea
udabarrin,
amesa zoragarri
bera bezin.

Geldi udabarria
zagoz emen,
zugaz izango dogu
poz zoramen.

Ez da udabarria
betirako,
inoiz ilgo ez dana
zerun dago.

Betiko udabarri
lortu daigun,
bizi barritu gaizan
Jauna lagun.

GALLASTEGI'k



BIZKAIKO EUSKERA

Agur Bizkaiko euskera!
zara niretzat maitena,
zure bitartez lenengoz
eldu zan itza nigana.

Zure soinu bigunagaz
ezautu neban nire ama,
beti maite amai barik
nire biotzen kutuna.

Lenengoz zure bitartez
ezautu neban txikirik,
zein andi eta ona
zan zeru goiko Jauna.

Nire jolas ta jardunak,
alkarizketa guztiak,
umearoan, euskera,
zugaz txit inguratuak.

Gizaldi ta gizalditan,
edesti baiño aurretik,
gaurko egunetaraño,
jakintza dogu zugandik.

Kriston eliz gaizkatzaliek,
zure bidez eten barik,
biurtu dauz Jaunagana,
euskaldunak biotzetik.

Zureak bertsolariak,
zureak abesti leunak,
Zureak dantza zoliak,
zugaz bete gure erriak.

Euskera batu, ondo dago,
erri bat garealako,
bada benetako euskera,
danok alkar aituteko.


Baiña bakotxak berea
bear dogu lenen jakin,
galdu бага euskal sena
izan dedin beti gukin.

Il zorian zagoz orain,
bizkaiko euskera ona,
lilliratur seme asko,
iges doaz bestengana.

Euskaldun sendi jatorrak!
Zuena da gure euskera.
Irakatsi sendietan
jarrai dagin semeetan.

Agur Bizkaiko euskera!
Bestek bezin eder ona.
Iraun uri ta baserrin
izan gure atsegiña.

GALLASTEGI'k



OIZ'EN IZAN ZAN

EZ-BEARRA

Ez da errez aitzuko Euskalerrian eta batez be gure Bizkai maitagarri onetan Oiz mendian izan zan ez-bearra, egazkiña, mendia, euskal-telebista eta Sondika'ko zelaia kideko zirala, eun eta berrogei ta zortzi norki, eroaleak eta eroanak eriotzaratu ebazana.

Laiñoen gaiñetik egaz joatea aurrerapen aundia izan da, baiña zori txarrez, eta beste aurrerapen batzuan antzera, bere kalteak sortzen dauz.

NORTZUK

Askotarikoak izan dira ez-bear orretan eriotzea aurkitu dabena: Lenago ministro ospetsua ta zurra izandakoa, Bilbo'ko zine-leku ezagun batzuan arduraduna, ama ezinduai umeak sortzeko laguntza emoten eutsen osagille trebea, eta bakoitza bere asmoagaz Madrilletik Bilbo'ra etozan ainbeste ibiltari.

Baita egazkiñaren eroaleak be: Lar ausarta zala diñoen pillotoa, bere laguna, egazkin-neskak edo azafatak, mekanikuak eta abar. Ez-bearrak ez eban iñor bereiztu, guztientzat zauriak eta sua, menditik berako bidean zugatzak apurtu eta gorputz-zatiakaz nastauta izteko.

PARAISUA TA SUGEA

Libururik zabalduenak gizona munduan agertu zan une aretan atsegin —baratz ederrean gauza on eta pozgarri guztiak ipiñi ebazan, baiña baita antxe bertan sugea be.

Gure aldi onetako jakintzak aurrerapen aundiak egiten dauz. Azkenengo berrogei ta amar urteetan aurreragoko gizaldi guztietan baiño aundiagoak. Baiña zugatz eder eta atsegingarri onein artean, antxe dago sugea.

Zelako alegiñak egin dauzan gizonak egaz egiten ikasteko, oraintsu ikusi doguzan urrutikuskiñeko ekiñaldietan agiri izan danez, baiña asieratik antxe izan da sugearen uzikea, antxe eriotzak eta negarrak. Gaur munduaren inguruan ugari dabiltz egazkiñak, baiña ugari baita ez-bearrak, beste aurrerapen batzutan jazoten dan antzera.

EROALEEN ARDUREA

Laiñoak urratu eta onein gaiñetik zeru urdiñaren azpian geure buruak aurkitzen doguzanean, ango zabaltasunaren neurria begiratu ezkeron ain txikia dan tramankulu aren eroaleagana biurtzen doguz gure gogoetak: Bere eskuetan gagoz.

Eta barrero zearkada ariñean lurrerantza jatsiten garanean... toki batzutan, batez be sortaldean, txaloak jotzen dautsoez eroaleari eta ez da txarto egiña; Amesezko ibilladi luzea arriskuak alboratuta, azkeneratzeak bear dau orrenbeste, gauza txalogarria da.

Bear ba'da eroaleak oitu egingo dira, baiña euren erantzukizuna ez da txantxetakoa.

SONDIKA TA EZTABAIDEA

Sondika'ko zelaia ez dagoala toki egokian, eta arriskugarri edo inguruetan bizi diranentzat azpergarri dala antxiñatik esaten dan gauza da, baiña ba-dau Bizkaitarrentzat bere onura zelai onek. Sondika edo antzeko tokiren bat bear-bear dau Bizkaia'k.

An inguruan biztanle asko dagozala, loa galazoten dauala, egazkiñak lurreratzeko, zulo antzekoan dagoalako, txarra dala, laiñoa sarritan eukiten dauala ta olakoak esaten dabez aurka. Beste leku bat, Bizkai-barruan egokiagoa dan pentsatu bear, baiña Bizkaia'k bere egazki-zelaia bear dau.

URRUTIKUSKINA

Egazkiña bear dan baiño beragotik etorri danean, urrutikuskiñaren zabal-erpiña jo daualako be izan dira zer-esanak. Olako jazokizun mingarrietan zeri errua bota billatzen armin ibiltzen gara. Baiña albiste-bide onen arduradunak diñoenez erpin ori legez ipiñita dago eta egazkiñen eroaleak eskuetan izaten dabezan lur-irudietan agertzen ez ba'da, ori beste batzuan arazoa da.

Dana dala, olako ezbear mingarriak noizean bein izan arren, ibilketa bizkorraren barruan or diardue millak egazkiñak eta milloiak gizakiak aidean euren ostera ariñak egiten: Ameriketan apaldu, Madrid'en goizaldu eta etxean bazkaldu.

IZKUNTZA

EUSKERA

Jaungoikoak txori-enda bakotxari
bere abestia emon deutso.
Lora-mota bakotxari, bere usaiña.
Giza-abenda bakotxari, bere izkera.
Euskaldunai, EUSKERA.

Euskaldun:
euskera baiño izkera arroagoak ba dira.
Zureagorik ez.

Izkera gogoaren ikurriña da.
Izkera aldatzea, aberria aldatzea da.

*Ametzaga'tar Bingen'ek "Euskal-Esnalea"
aldizkarian. 1925. Algortako abertzale onek
16 urtegaz ikasi eban euskera.*

Gura dozuzan izkuntza guztiak buruan artu egizuz,
baiña biotzean beti euskera.

Maite dogu euskera zarra dalako, ederra dalako,
gure mendietako usain gozoz usaindua dalako.
baiña batez ere GURE-GUREA dalako.

Etxegaraï'tar Karmel.

Izkuntza, etnia edo erri baten zatirik garrantzitsuen da.
Izkuntza ez da gizarteko artu-emonetarako TRESNA bat bakarrik.
Izkuntza kultura baten burdia da.
Gogo baten ispillua.
Erri baten balioaren Eliza Nagusia bezela.

Izkuntza erri baten arima da,
eta aberriaren gorde-leku eta babesa.

Izkuntza galtzeak, abertzaletasunaren galtzea dakar.
Orregatik erri aundi batek, beste erri txiki bat
galdu gura dauanean,
alegin guztiak egiten ditu, erri txiki orren izkuntza kentzeko.

Guy Heraud. "L'Europe des ethnies"

Ez dot uste munduan dagoenik, euskerak baiño sustar gogorragorik daukanik.
Legorte, izotz gogor, eta ekatx ikaragarriak igaro arren,
oraïndik bizirik irauten dau.

*Menendez Pidal
Goikoetxea'tar Iñaki'k Batuak*

IRRI-BARREA

Gaur, goizean-goiz,
oraïndik erdi-lotan,
lanera joaterakoan,
bideak edurrez zuri,
iturriak izotzez geldit,
emakume bat aurkitu dot,
kale bazterrean, otz-ikaraz,
umetxo bat altzoan estutuz,
bere bularrean berotuz.

Amak, begietan larria,
—barruko samitiaren ezaugarria—
esku gosea luzatu
eta limosnatxo bat daust eskatu.
Nik,
esku beroa atera sakeletik,
eta limosna emon daustat errukiturik.

—Andreak niri: "eskerrik asko, Jauna, milla esker"
—Nik andreari: "Ori ez da ezer".
... Baiña umetxoak, amaren altzotik
bialdu daustan irri-barre gozoak,
oraïndiño be nauka zoraturik...

Kalean aurrera,
joan naz lanera,
nire buruan pentsatzen,
biotzean ausnartzen:
Nok emon dautso limosna nori?
Nik umetxoari, ala umetxoak niri?
Zerk balio dau geiago?
Umetxoaren irri-barre ezti, beroak,
ala nik emondako diru, gogor, otz, metalezkoak?

Goikoetxea'tar Iñaki

PIERRE LAFITTE (1901-1985)

PIERRE LAFITTE (G. B.)
Idazle errikoia, Iparraldekoa
(1985-II-23)

Oraintsu il jaku iparraldean Pierre Lafitte, abadea, Euskalerrian aspaldion izan danik idazlerik punterengoe-tarikoa ta euskaltzaiña: (1985-II-23).

Ustaritze'ko abadegai-etxe txikian irakasle izan da 1926'an asi eta il arte.

Bere lanak: *Egiazko argia* (Antzerkia), *Julien Heguy apheza*, *Eskualdunen Loretegia*, *Elizako liburu ttipia* (be-rak geitu ta argitaratua), *Euzkadi* (berea diñoenez), *Kobla-rien legea*, *Euskal-Herriaren alde*, *Kantuz*, *Jesu-Kristoren Bizitzea Azilla edo Hilen ilabetea*, *Herriaren aldeko kantuak*, *Murtuts eta Bertze*, *Mende huntako Euskaldun idazleen pentsa-bideak* (Itzaldia), *Idek eta zabal gogo-bihotzak*, *Bernardo Gazteluzar olerkaria*, eta aldizkarietan beste lan asko, baita beste 14 bat antzerki-lan. Erde-raz, France'ko erderaz, beste lan asko eta asko. (Ikusi danaren barria, Onandia'ren Euskal Literatura'n, V, 428-434 orrialdeetan.)

Ba-dira urte pare bat azkenengo ikustaldia egin geun-tsula, aita Santi'k eta biok. Antxe aurkitu genduan Uztari-tze'ko abadegai-etxe txikian, bere zeregiñetan arduratsu baiña zar-itxuraz eta bere abade-jantzi luzea garbi-garbi ez ebala.

Aitatu doguzan bere liburuetatik ateraten dan lez, Lafitte kanonikua, abade erritarra zan, erriko gauzak azter

tzen eta billatzen zalea eta bere erriaren, Iparraldeko Eus-kalerrriaren maitale zintzoa. Olako gizonak guztiontzat dira maitagarriak.

BATUA ETA LAFITTE

Lafitte, iparraldeko beste euskalzale askoren antzera, ez zan burrukalaria izkuntza-saillean: Bertako euskereari indarra emon, laguntza emon, eta kito.

Baiña euskaltzaiña zan eta izate orrek bultzatuta, batu-zale lez agertzen da.



Euskera batuari iparraldeko berezitasunak eta atxea sartzeko erabagia artu zanean, onako au esan ei eban Lafitte'k: Ez zaiteze sartu urperatzen dagoan ontzira". Bera ontzi orretan egoan, baiña egoaldeko euskereak bere bideak artzea naiago eban, sendo jarraitu dagien eta iparraldekoa ikusten eban galbidera sartu ez daiten.

Alperrik izan zan. Euskaltzaindiak oker-bide ori artu eban eta gero ortik jarraitzen da guztion kalterako.

Iratzeder, Belok'eko abatak, be esan eban bein lau edo bost atxe naikoa zirala iparraldeko euskereak bear ebazan bereiztu-bearrak egiteko, baiña Bergara'ko batzarrean 200 atxedun itz eskatu ziran, eskatu eta ezarri. Eta onetan iparraldeko idazleren bat izan zan bultzatu eta bultzagille.

Gure agurra Pierre Lafitte abade ta idazle euskaldunari.

OLAZAR'tar Martin



ZUGATZAK ETA LANDARAK ALKARTASUN BARRIAN

(Lei = Leizarraga, 1571; Duv = Duvoisin, 1865; Ol = Olabide, 1958; E-B = Euskal-Biblia, 1976.)

Bosque (Santiago 3, 5)

Mirad qué pequeño fuego abrasa un **bosque** tan grande.

Lei: Huná, su xipito batek zein **egurtze** handia iraxekiten duen.

Duv: Hara zein, phindar xumeak, zein **oihan** handia duen erretzen!

Ol: Ara zein sutatik zein **oyan** garrez!

E-B: Ikusi egizue su apur bat naikoa dala **basotzar** guttia erreteko.

Huerto (Joan 19, 41)

En el lugar donde habia sido crucificado habia un **huerto**.

Lei: Eta hura kruzifikatu izan zen leku hartan zen **baratze** bat.

Duv: Bada, Jesus gurutzefikatu zuten tokian bazen **baratze** bat.

Ol: Gurutzatu izan zan tokian **baratza** bat zan.

E-B: Gurutzean josi izan zan tokian, **ortu** bat egoan.

Paraíso (Lukas 23, 43)

Yo te aseguro: hoy estarás conmigo en el **Paraíso**.

Lei: Egiaz erraiten drauat, egun enekin izanen aizela **paradisoan**.

Duv: Egiaz derratzut, egun **parabisuan** enekin izanen zare.

Ol: Ziñez dasaizut: gaur Nerekin **atsedendegian** izango zaitut.

E-B: Benetan dirautsut: gaur neugaz batera izango zara **Paradisuan**.

Arbol (Mateo 12, 33)

Suponed un **árbol** bueno... porque por el fruto se conoce el **árbol**.

Lei: Edo egizue **arbore** ona... ezen fruktutik **arborea** ezagutzen da.

Duv: Egizue (edo), ona dela **arbola**... ezen fruitutik da arbola ezagun.

Ol: Edo **zugatz** (ta arnaria), biak era bat onartu... **zugatza** zer dan arnaritik ageri da-ta.

E-B: Egizue **arbola** ona dala... **zugatza** bere frututik ezagutzen da-ta.

Arbol de la vida (Agerpena 2, 7)

Al vencedor le daré a comer del **árbol de la vida**.

Lei: Biktoriosoari emanen draukat iatera **bizitzeko arboretik**.

Duv: Garhaileari emanen diot jatera **bizitzeko arbolatik**.

Ol: Garaitzailleari yateko emongo diot... **bizi-zugatzetik**.

E-B: Irabazi dagianari... **bizitza-zugatzetik** emongo dautsat jaten.

Viña (Mateo 20, 4)

Id también vosotros a mi **viña**.

Lei: Zoazte zuek-ere ene **mahastira**.

Duv: Zuek ere zoazte ene **mahastira**.

Ol: Zoazte zuek ere nere **maastira**.

E-B: Zoazte zuek be nire **maastira**.

Vid eta sarmiento (Joan 15, 5)

Yo soy la **vid**; vosotros los **sarmientos**.

Lei: Ni naiz **aihena**, zuek **xirmenduak**.

Duv: Ni naiz **aihena**, zuek **adarrak**.

Ol: **Maatsondoa** Ni naiz; zuek **maatsayenak** zerate.

E-B: Ni **maatsondoa** naz; zuek, **aienak**.

Cizaña (Mateo 13, 30)

Recoged primero la **cizaña**.

Lei: Bil ezazue lehenik **hiraka**.

Duv: Bil zazue lehenik **hiraka**.

Ol: **Iraka** aurrenik bildu.

E-B: Batu egizue leenen **galdebarra**.

Cebada (Joan 6, 9)

Aqui hay un muchacho que tiene cinco panes de cebada y dos peces.

Lei: Baduk hemen muthilko bat, dituenik borz ogi **garragarrezkorik**, eta bi arrain.

Duv: Bada hemen muthilko bat, bortz **garagar** ogi eta bi arrain dituen.

Ol: Bost **garagar**-ogi ta bi arrai ditun mutiko bat badago emen.

E-B: Bost **garagar**-ogi ta arrain bi daukazan mutil bat badago emen.

Hortaliza, verdura (Markos 4, 32)

Crece y se hace mayor que todas las **hortalizas**.

Lei: Goratzen da, eta berze belhar guzietako handiena egiten da.

Duv: Igaiten eta beste baratzezhari guziak baino larriago egiten da.

Ol: Gora dator, ta barazkietan geyena azitzen da.

E-B: Azi ta **ortu-arl** guztiak baiño aundiagoa egiten da.

Menta, aneto eta comino (Mateo 23, 23)

Pagáis el diezmo de la **menta**, del **aneto** y del **comino**.

Lei: Ezen detxematzen dituzue **menta** eta **anisa** eta **kuminoa**.

Duv: **Mendako**, **anetako**, eta **kumineko** hamarrenak ematen dituzuenak.

Ol: Iñuntzi ta **ezamillo** ta **kumiñetako** amarrenak ordainduta.

E-B: **Aizpatan**, **aneta** eta **txarpollar**-bedarren amarrenak ordaindu bai, baiña...

Menta eta ruda (Lukas 11, 42)

Pagáis el diezmo de la **menta**, de la **ruda** y de toda hortaliza.

Lei: Ezen detxematzen dituzue **menthá**, eta **rutá**, eta baratze belhar guzia.

Duv: Hamarrena **mendatik**, **erruatik**, eta baratze kari orotarik ematen baituzue.

Ol: **Iñuntzi**, **bortusai** ta belar guzien amarrenak ordainduz.

E-B: **Aizpatan**, **boskoltz** eta ortu-ari guztien amarrenak emon bai, ta...

LAU URTEKO NEURE IBILLERAK (Alegera'ko abeslari)

Ni ez naz izan abesbatzetako abeslaria gudate arte. Ondarru'n musika taldeko gienak abeslariak ziran arren egundo ez jatan bururatu olako konturik.

Aldi aretan Bilbo'ko sariketetan bere trebetasuna ederto agertu eban abesbatza zan Ondarru'n Don Anjel Urzelai zarautztar abade gazteak zuzenduta.

Alako abesbatzan lagun asko bear izaten da ta sariketa baterako gertuten ziarduan aldi baten, neuk be joan egin bear nebala esan eustan abeslarietako batek. Ta esateko abotsik euki ez arren solfeoa ba-geunkala ta (amalau urte nituanetik musika taldekoa izan nintzan Ondarrabia'ra aldatu arte) joan egin nintzan. Abots ona ez eukenen edo makala eukenen saillean jarri nintzan, bigarren tenoretan. (Zerbait ba-dirala agertu nai izaten dabeen guztiak beste sailletara joaten dira, lenengo tenorretara edo bekoe-tara.)

Urzelai jaunak, gaztea izan arren, makillea baizen zuzen eukiten eban jendea. Ikas saioa asita laster gure saillera zuzendurik didarka asi zan. Garbitu bear ginduzala zirudian. Txarto abestuten ei eban gure saillekoren batek. Neugaz ete ebillen susmoa egin neban. Urreratu zan eta gure saillari bakarrik abestu eragin eutsan besteak ixillik egozala. Gauzak ain gogor ikusi nituanean aorik ez neban zabaldu. Geiago ez nintzan joan.

¡Ni baiño belarri txarrekoagorik ba-ebillen an! Baiña an ez neukala zeregiñik iduritu jatan eta beingoagaz amaitu neban.

Donibane Loitzun'era joan eta urrengo udabarrian, ango abesbatzara joan bear nitzakeala esan eutsan Teodoro lengusuari beragaz batera Donostia'ko Eusko Abesbatzan egondako batek. Ta onek, Teodoro'k, solfeoa geunkan beste lagun bi, irurok ondarrutarrak, eroan ginduzan: Etxebarria'tar Ixidor eta neu. Ixidor, Ondarru'ko elizako abeslaria zan.

Gu emenguok agertzen giñan toki geiegotan be izan zan eztabaidea atara zan an be, politikea. Areik, danak edo geienak katolikuak ziran, eskumatarrak. Ta geu be katolikuak izanik gorriakaz batera joatea ezin ebela ulertu esan euskuen. Asarre barik baiña naikoa berba egin genduan. Ixidor'eri ez jakon atsegin izan eztabaidea a, edo gure jokabidea areik ontzat ez emotea ta geiago ez zan joan. Teodoro ta ni ez gengoan eztabaidea bategaitik atzera egiteko ta jarraitu egin genduan.

"Alegera" zan abesbatzaren izena ta Donibane'ko musika taldean bonbardinoa jotzen eban Bentxan izeneko ziburutar bat zan zuzendaria. Ba-egozan abotsak baiña solfeo gitxikoak edo batbe ez ekienak ziran geienak. Ta abestiak, lendik ekiezenak. Urzelai'ren abesbatzan baiño errezagoa zan an abestutea.

Uda bitan abestu genduan abesbatza aretan: 1937'garrenekoan eta urrengokoan. San Juanetan izaten zan asiera, Donibane'ko musika enparantzian, udaletxe aurrean.

Erbestean be izan giñan bein baiño geiagotan. Baten, Endaia'n ziran euskal jaietan izan giñan, ango abesbatzaz batera abestuteko. Bertan, beste ikuskizunen artean, gurdi apaiñen igarotea izan zan. "Amaikak bat" izenekoa-ri txalorik geien jo eutsan jendeak. Zazpi probintzietako eskudo andi bat eta alboan lau gazte, zatoetatik ardaudaten egozan itxurea egiñaz. Zazpi ta lau amaika. Zer adierazo nai eban arek, euskaldunak edan-zaleak giñala? Olakorik ezer be ez ziurren; zerbait asmau nai ta urteten ebanak urten. Baiña euskaldunok edan zaleak garala agertutea izan ba zan euren asmoa, ez zan dana guzurra.

Beste bein Baiona'ko zezen enparantzara joan giñan. Abesbatza geiago be ba-ziran an. Bat Pirineo aldekoa, Bearne'koa-edo, antxiñako erara jantzita. Urteeran Lucien Baroux zine gizon barre eragille entzutetsua ikusi genduan, zinean ikusten oituta gengoan antzekoa, alai itxurakoa. Gure abesbatzako neskatillak zarataka asi jakozan ezagutu ebenean eta besoa jasota zerbait esanaz erantzun eban berak.

Bein, Donibane'tik kilometro batzutara bizi zan andiki baten jauregira joan giñan. Ez dakit zein erritara, joan etorria gabaz egin genduan da, ta erriaren izena ez jat gogoratzen. Baiña Arcangues edo izan zeitekian.

Etxeko nagusiaren iru semek txirula joaz agurtu ginduezan. Jaia, etxe aurreko lorategian egin zan, tximistargi margodunez argituta. Dana apain. Ez nago ziur baiña ezpatadantzariak be ba-zirala uste dot geugaz batera.

Jaia amaitu zanean zutiñik jatekoa ta edaria euken gerturik etxe barruan nai aiña. Ta jibilli atzaparrak!

Andiki a euskaltzalea bide zan. Jantokiko arman, olean idatzita, jateazko esakun bat, euskeraz, egoan. Urte askoan buruan euki neban ziñoana, baiña ez neban idatzi ta denporeagaz aztu egin jatan. Politikan errege-zalea zala esango neuke, beintzat España'ko errege izandako Alfontso XIII'ren argazkidun lauki andi bat ikusten zan ormatik eskegita.

Baztar baten piano bat egoan eta geugaz batera abestutera joandako bat, Garbizu'tar Tomas lezotar musikari ezaguna pianoari zirika asi zan eta gero nagusiari baimena eskatuaz jo alditxo bat egin eban. Ederto jotzen eban pianoa Garbizu'k eta danok pozik entzun geuntsan berari. Etxeko nagusia, andikia, be urreratu zan eta piano joleari, onek saioa amaitu ebanean, bere atsegiña agertu eutsan eta urrengo batean joaldi bat egitera joan eiteala eskatu. Baietz erantzun eutsan Garbizu'k.

"LAISSER PASSER"

Gu Prantzia'ra joan giñanean "laisser passer" izeneko agiria emon euskuen. Agiri axe zan balio euskun bakarra. Beti aldean erabilten fenduan; nik geienetan, galtzen atze-

GUDALDIA

ko poltzikoan, kartera edo olako iñun sartu barik. Ta bein, ixiko Maria, galtzak garbitzean poltzikoan zer egoanik ez zan konturatu ta ¡Agur! nire “laisser passer” agiria. Ezetarako ez zan paper zarra geratu zan.

Derriorrekoa neban agiria ta beste bat egiteko oinkadak emoten asi nintzan; ta argazki bat eroan eragin eusten eta ordutik iru-lau egunera an neukan barria, poliziak emonda.

Ez nintzan asko poztu beragaz eskuetara emon eustean. Beko ertzean eskuz idatzita itz pilloa eukan. “Situation precaire’n —edo nengoala ta au ta bestea. Prantzia’n poltziko utsekoari txarto begiratzan eutsela ba-nekian eta itz areik, nire ustez, ez-eukia-edo nintzala esaten eben eta kendu nai nituan. Gaiñera ez zan egia, orrenbestean beintzat, nire ez-eukia, bada bear nebana Lorentzo koiñatuak bialtzen eustan da. Orduan be ba-neukazan dozena erdi libra esterlina.

Ta berba areik kendu naian asi nintzan bateri ta bes-teari berba egiñaz. Ain zuzen aldi aretan, Scola, Ondarru’ko nire nagusia ta andrea andik igaro ziran eta ostatuz egon ziran hoteleko nagusia Donibane’ko ziñegotzia zan eta beragaz berba egin neban. Ikusi eban agiria. Berba areik ez eukela ezer garrantzirik esan eustan; baiña ezer jazoten bajatan beragana joateko.

Ziburu’ko erri idazkariarengana be jo neban; ta gero, Donibane’ko erri-zaiñen buru egiten ebanarengana, ondartzan ezagututa neukan bere semearen bitartez. Danengandik berba bardiñak eztzun nituan; agirian ziñoan-ak ez ninduala txarto ipinten, berba areik garrantzirik ez ebela, baiña ezer okerrik izaten baneban eurakana joateko pozik lagunduko eustela ta. Iñok ez eban nai poliziakaz sartu. Ba-ekien kontixu alperrik zana; edo euren arazoetan iñor sartzea oneik txarto ikusiko eben gauzea izango zala uste eben.

Ori ikusirik burua makurtu egin bear izan neban, “datorrena datorrela” esanda.

PINUETAN

Lenago be esan dodala ta nago gutzat ez egoala lanik Prantzia’n eta bere menpeko lurraldeetan. Alde guztietako gaixotasuna zan denpora areitan lanik eza ta etxe-koentzat sortzea be ez zan gitxi prantzesentzat. Beraz, olako burutasunik, laneko asmorik egundo ez genduan artu.

Baiña Ziburu’n illa batzuk geroazala piñuetako lanaren barri gure belarrietara eldu zan. Nai izan ezkerro piñu ebagite lana egin ei geinkean atzerritarrok. Jakin nebenez, langille billa gizon bat etorri ei zan Donobane’ra. Baiña gizon sendoak bear ei ziran lan aretarako. Beintzat gizon (negrero) arek aurkeztu jakozan iru ondarrutarretatik bi aukeratu zituan eta bestea baztatu. Aukeratuak gizon gazte ta sendoak ziran, ogetamabi urte inguru ta larogetamar kilo urrean zituenak. Ta bestea baztaturia izan zana be larogei kilotik gorako besteen adiñekoa, pelotan ondo zaildua.

Juaristi’tar Gelasio ta Guenaga’tar Iñazio ziran piñuetara joandakoak, ta baztaturia izan zana Jose Kortazar, irurak Ondarru’n ezagun-ezagunak. Baiña joan ziranak be laster ziran barriro Donibane’n. Uste dot astelenetik larunbata bitartekoa bakarrik egin ebela basoan. Piñu ebagite lana zelako gogorra zan jakiteko naikoa denpora zan. Areik ez eukan piñuetan jarduteko aiña premiñarik.

Piñu lanerako alako gizon sendoak bear baziran, irurogei kilorako bi edo iruren paltan ibiltzen nintzan eta egundo eskuetan aizkorea artu bako ni lakoentzat an ez egoan ezer egitekorik.

Baiña ordutik illa batzutara, beste erakoak ziran piñu lanazko barriak. Nai eben guztientzat ei egoan lana. Beraz, geuk be zerbait asmau bearra geunkan. Beti iñoren kontura ez giñan biziko, gudeak amaitzeko itxurarik ez eukala. Ta lagunetatik gazteena joan zan: Rafael lengusua. Gero aren esanakaz jakingo genduan zelan jokatu.

Ta ara elduta laster, geu be bertara joateko bideak egiten asi zan. Lenago Larrun’era osterea egin genduanok joango giñan. Teodoro lengusua, Ixidor, Karlos Astasio ta neu. Ta izentau genduan joango giñan eguna.

Baiña danok joaterik ez zan izan. Lagunetatik bati barri ona eldu jakon azken egunetan. Donibane Loitzun itxiko eban geuk lez, baiña ez piñuetaruntz. Aldi aretan Euskal Gobernuak eratuta Eresoinka izeneko abesti ta dantza aldra bat sortu zan Laburdi’n, gure erriaren izena Europa zear zabaldu eian. Ta piñuetara joateko geienez be bi edo iru egun palta jakuzala erti aldra aretarako deia izan eban Ixidor’ek eta an joan zan pozik Sara’ra. ¡Alde ederra, orratio, piñu ebagiten basoan jardun edo Europa’ko erririk andienetako antzokietan abestuten ibilli.

Olan bada, beste irurok joan giñan bizimodu barri ta gutzat ez —ezagunera geure jantzi ta gauzatxoak artuta.

KAMINAZPI

ARPIDETZEKO TXARTELA

ZER aldizkaria artu gura dot eta bialdu egidazue zuzenbide onetara:

..... tar

..... kалан (auzoan) zenbakian

..... errian, errialdean (probintzian)

Arpidetzea ordaintzeko diru-etxera (bankura) bialdu ordain-

txartela, an daukadan zenbakidun diru-kontura.

IDAZLEAK

Euskal Literatura diñogunean izen-ondo bat emoten jako ez bakarrik erriaren izkuntzeari dagokiona baita an dagon lurralderi be. Egillea, idazlea, olerkaria ez dira arrotz-kanpoko, eurok jaio ta bizi diran jatorrizko giroari. Ezta irakurleak. Euskal lurraldeak biai eskeintzen dautse sentzumenetik danba-danba sartzen dan berarizko izadi-giroa. Argitasuna ta aroa dagokioz idazlearen gogamen, biotzkada ta artegatasuenai. Bakoitxaren eraz erriak sumatu ta aditzen dabe izadia alan, olan, orrelan edo one-lan. Ez gara, ba, ezbardiñak? Lurraldeak, iñoz ez geldi, beti aldaketan, argi ta margoz iraunkor, eten barik, gure andra-gizonen minberatasuna, irudiz, zentzukizun ta biotz-eragiñez bonbakatzen dau. Gure aldean, itxaso ta mendia, ibar, aran ta zelai beroak zelan edo alan eragiten dabe barruan eta zelangotasun izakeran baita minberatasun sentikortasunean be. Lengo urrena dan gizaldi azke-nean eta oraingoaren asikerean, gure Euzkadi izenaren irasle, Sabino Arana, izadiaren zalea izanez, bere olerkien irudiai indar biotz-ikara damotso bere adinkide, aldikoak ez eukiena, oneik bakarrik pintagarri zeatzkuntzari zireako. Sabino Arana-renak jatorrago dira, minberatsun indartsuago daukie. Bere amaren eriotza zala'ta olerki bat idazten dau izenaz "*Sinismena, Fedea*". Biotza irauli ta artegazoten deutson tamala, nekaldia adierazoten dau-nean urteten jakoz, bata beste ostean, irudi gogorapen oneik: ekaitza, gau illun, areitz zar baten adarra, egadun eguneko, gozoz lo dagon txoria egaduna illunetan egazkada, eriotzaren bolada. *Zalantza barik, bere gogo egoera gaur gerokoen irudi berberak dira, baiña orduan, aldi atan ez ziran euskal olerkian gustiz oiturazkoak adierez-ten dabenak:*

*"Gau itzal otza
eguzkiaren
ostetik,
bein egunoro,
arpelik,
argi ta bero
bil billa.*

*Bil-billa
arinka
dabillan letxe.
Berau be
beti ibilliko
eta naz
amaren billa,*

*iñoiz idoro
egiñaz...
edonon loka,
edonoiz illun,
ots utza?...*

Aitatuko dogu baita bere bertso neurri bakoaren bardinga bat, orduan idazten ebenaren ezbardiña dana:

*"Goiko oinastuak
basoa
ganetik bera
dana argi zuriz
beteta...
txori estua,*

*ikusi ta, arin
eltzen da
zugatz batera
Zeruan erne
ta nire gogo
laiñoiz itsura*

*jasten da
argi erro bat
nirezat...
Goiko argiaz
neronen ama
dakust oin bertan".*

Arana Goiri On Domingo Agirre baiño geroago bizi izan zan. Alan be, bardindu daigun onen zati au zeazkuntza politaz izadiaren zaratak adierazten dituana: "Milla bidar, bai, entzun ebazan bakartasunaren erdian jarrita egoala, urruneko trumoiaren orruak, ekaitz aizearen durundua, artzaiñaren deaadar luzea, egurgillearen aizkorada neurtua; basurdearen arnas-otsa, otsoaren alaraua, azeriaren ausia, beorren irrintzia, mosolloaren oiua, basauntz bildurtiaren zalaparta; abere arranen dulunduluna, ardien bee negartia, suge zarraren txistua, belien garraxi latza, zozoaren txotxorra, txori abeslari askoren txio-txio alaia, errekastoen poll-polla, sugatz ostroen pիր-pիր biguna, eltxo gogaikarrien zunburruntxua..."

Ez da beti zeazki azalduta geratzen, atera barik ikus-min, nekaldi edo atsegiñen bat. Mendi tontoretik aldatz beera jatsiten dan baserritarren irudimenak marrazki xingola darabil eta gogora jatorko bide-lagun on bat dala.

1897'TIK 1936'RA BIZKAIA'N

Arana Goiri'tar Sabino. Beronek asmau eban Euskal-erriaren izen ederra: Euzkadi. Eta beronek ekarri ta emon eutson indarra, ondiño sentiduten dan indar bat da, ta erriaren barru-barruko aastindu ta eragiten dau sakonki, bere izkuntza Euskerea gorde, indartu ta apainduz. Baiña oraingo euskaldunok ez dogu iñoiz aitzu bear gaurza bat: Arana Goiri'tar Sabino'k orain darabilgun batasun zantarra ainbeste kalte dakaskuna ez eban gura. Ez Izkuntzan ez Politikan. Euskerea dago Euskalkietan: oneitan batasuna egitea Euskerea iltea da. Sabino'rentzat Euzkadi'k Alkartasunean bizi bear dau; baiña Lurralde, bakoitxa bere naigura betez berton sartuta ta egonda. Sabino'ren elburuz Euzkadik izan bear dau, Suiza lango-xea. Alkartasuna, Kanton, eta Lurraldeak, norbere buru jabetasunaz. Ona, Erri-aginte, demokraziaren ames lillugarria.

* * *

ON Domingo de Agirre. Biotzez olerkari. Bere idazti ederretan, esaterako Auñamendiko Lorean ta Kresalan euskera mamintsua erakutsi ta irakasten deusku. Irudietan aberatz euskalerriko oiturak egoki ta trebetasunez margozten deuskuz.

* * *

Bustintza'tar Ebaristo. (Kirikiño) Edestiak eta ipuiña-k. Alkarizketa zartari. Erri berbazko idazkera pintagarri. Bere idazki, idazti edo liburuak zenbat geiago irakurri ainbat atsegintsuak egiten dira Ebaristo'k bai daki barre algaraka eragiten bere literatur-gintzan! Beste idazle guztiak baiño irakurle geiago daukoz. Augaitik, erri erazko berbetearen zabaltzaille dogu.

ELERTIA

E. de Urkiaga (Lauaxeta). Lauaxeta'ren erti literatur-gintzak biotzeko dirdaiadurak dira. Olerkidun eres-doiñu samurgarri, sentibera. Beste izkuntzen olerkari samurkoi asko irakurri dauz, baiña eusko-nortasun berarizko zoragarri samurgarria daki ipinten bere olerkietan.

* * *

Azkue'tar Berbizkunde. Benetan berbiztu eban Azkue'k Euzkerea ta arnasa emon. Zein euskaldunek ez ete daki nor dan Azkue? Euskaldun guztiok Azkue'ren aurrean txapela kendu bear dogu. Bera ebillen erriz-erri

euskaldunai euzkeraz entzuten ta euren berbak ingietan ipinten. Eta egin eban Iztegi ederra euzkeraz, erderaz, prantzez-euskal guztien Iztegi eredu iturririk onena da. Eta Iztegi orretan dago Euzkerearen aberastasun biotz-ikaragarria. Batuzaleak, Euzkeraren iltzailleak, diñoie Azkue'k gura ebaia "gipuzkera osotua". Baleiteke esan esango eban giputzen euskeraganako zaletasuna ikusirik, eurai kemena emoteko bide orretan, baiña iñoiz ez eban edatzi olangorik, eta berak beti berba egiten eban *Bizkaieraz*.

EGILUZE

ATZOKOAZ MINTZATZEA

Atzokoaz mintzatzea
ez da berakautako gauza
ez da ez erreza
egunara ekartzea.
Ez da ez erreza
gomutapenen aldi
une igeskor, laburra,
igaranezko une
bizigune laster, joana,
ain deusa ta ain apurra
barriz, atzokoz atzoko
unez une gomutatzea
gure gaurkorano
ez da ez erreza
ez da berakautako gauza.

Zer oroi, esan zeinke,
zer zure aurtzaroko
zer zure gaztearoko
zer zure elduaroko
egun joaneri buruz
zer mintza, esan zeinke
zure izana begipetuz
zer oldoz, esan zeinke
zer erakarri barrero
zeure izanbidezko
egunen egunezko
ainbat lor ta aburuz?

MUNIATEGI-TAR SABIN

ARRAINTZPORTU EUSKALDUNAK

Goizaz batera
egunero lez,
ta, kai ganera
aizeak
legunkiro edo zakar,
arrain usaiña dakar
itsasoetako onuraz
kaiok,
ontzi ganetan dirala
txilioka gangar,
ego zuridun gelduraz.

Gertu dagoz
erritarrak ta,
ontziak
banan-banan
itsasoetako
ondasunak

uztutzero datoz
egunaz.

Txixarru ta berdelak;
bixigu ta lebatzak;
antxua ta sardiñak;
egaluze atunak;
kolaio ta amarratzak;
lodiak ta argalak,
ainbat izerdi-nekez
gogoz karriaturiko
itsastar emokunak.

Bai, nik gogoan zaituedaz
Kantaurik gatzituriko
arraintzportu euskaldunak!!

MUNIATEGI-TAR SABIN

OLERKI-IDAZTI BARRIA: "DEIKA"

Egi-egixa esateko ez naz olerki-zalea, bear bada ez nazalako bear dan besteko ikasia, jakituna. Eta, *olerkirik geienak, batez be erderazkoak amets utsak iduritutzen yatazalako*. Orixe bai, ikusten dot jakituria, erraztasuna eta berezko zerbait euki bear dala neurritzko olerkiak idatziteko. Noz edo bein bertso bat edo beste idatzi dodanean aditu naz sailla dala eurok antolatzea, ba-dabela garrantzia.

* * *

Euzko olerkiak baiña, beste zerbait adierazoten daukue, geien baten gure lurraldeatzaz, gure giroa, gure giza-dia, gure Aberria'tzaz, bera benetan maite dabenak idatziak diralako, Solozabal'dar Paulin idazle ta apaiz zintzoak argi-taldu barri dauen "DEIKA" idazti barrian ikusi ta irakurri geinkenez.

Jakiña, eskuartearen dogu idazti irakurri garri ori, eskerrak Aita Santi'ri. Berreun da amabost orri-alde dituz idazti txukun orrek, beste lau orri-alde aurkibidez eta Aita Santi'ren Itzaurre mamintsuaz batera. Idazti orren erdi inguru, sei lerroko olerki maitekorregaz orniduta dago. Zerbait gitxiago lau lerrokoakaz eta beste mordotxu bat bost lerrokoakaz eta bai batzuk zortzikoak bere. Dana maitekor eta txukun Paulin idazle azkarraren olerki ta idazki guztiak lez. Ona emen beren idatziko lenengo olerki bi:

Azkatasun leia, gar
gar, dabil gizonetan.
Su-bero dario.
Izatezko garra da
biziaren miñean
Barru-barruraño.

Nundik datorkit gar au
ain illezkor ta gogor
barne irakiñetan?
Gizon indarrak baiño
ikaragarriago
dabil gizonetan.

Edo beste AMA-LUR be, benetan irakurgarria:

Lenengoz artu nindun
ama-lurren sabela,
bai maite goxoa!
Eztia izan jatan
jaio nintzan orduan
amaren gogoia.

Lurra sentikorra da,
baiña nik neuriri
xugatzen uriña.
Zure ta nire gorputz
basaz ta odolez
euskaldun muiña...

Baita urren datorzan olerki oneik bere,aldi onetan euzko-anaion artean dogun aserre ta ulertu-eziña dala-ta idatziak dirala esan leitekenok:

Len, seme ta alaba,
obeto aitzen ziran
nire lur maitean.
Gogorkeri malmutzak,
len bazterturikoak,
gaur dabiltz etxean.

Jakitun edozein da
ezer ikasi barik,
berezko jakiñez;
lengoak, arduratsu,
jakituri batzen
ibiltzen ziñez...

Paulin'en olerki idazti orretan zail izango zan berak ain maite dituzan euzko menditzaz zerbait ez ikusitea eta, ara or olerki orreitako zerbait:

MENDIAN

Mendian nengoan goiztar
argiaren aurretik,
euskal izadian.
Mendi ederrak nitun
ene begi aurrean,
goiznabar jorian...

Lora bat neukan, aurrez,
bakar ta berezia;
geure euskal-erria,
ederretan ederren
maitasuna zan, goizez,
ene erri guria!...

Baita beste lauki onetaiko oneik bere argitaldutea badabe:

Euskal mendien gaiñetik
egaz al ba'negi,
gogoz maitatuko neukez
Euskal-erriko lau egi.

Euskal lur guztia dago
bizi lorratzez beterik,
arbasoen bizi zarrak
geugaz katea egiñik...

Azkenez zortziko bi oneik berriz-idatziko doguz, beste asko lez jakingarriak irudituten jakuzalako:

ARBASOEN

Euskaldun arbasoen
erria nai ezta,
beste motrollokeri bat
sortuten dabilta;
Jaungoiko bagerikan,
jabetza kenduta,
ume zurtz-lur biurtu
nai luke gurea.

Nun dira arbaso zarrak
guraso maiteak...?
nun dira jakitunak
egi zaintzallailak...?
nun, nun, gure gizonak
biotzen jaubeak...?
nun dira odol zarrak
gorritutakoak...?

Onetara jarraitu geinke olerki idazti bikain au barriz-idatziten, baiña, geiegi luzatu dogun ezketiño, amaituko dogu esanaz, onelako euzko olerkiak dirala euzkotarren barrena ikututen dabenak. Jarrai bide orretatik Paulin adiskidea.

EUSKALDUNBARRI IZATEA

Euskerazko ikasketak errezak ez dirala esan genduan eta egia da baña, zein ikasketa da erreza?

Barri izaten dan guztiak, bere zailtasuna eukiten dau baña gogoz eta jakin-guraz, naiz laster naiz berandu, menperatu daiteke.

Orretarako jakin-gurea bakarrik ez da bear, eroapena, maitasuna, biotz aundi bat, eta ekiña be, bearrezkoak dira. Zuk guzti au badaukazu, prest zagoz euskeraz ondo ikas-teko eta edozein egunetan biotza galtzen badozu, gogoratu eizu:

Gudakoan eta geroago euskaldunei gaztelanieraz ez jakiteagaitik ainbat arazo eta neke gertatu jakezan baña eurek, naiz eta asko eskola-gabekoak izan, bereala ikasi eben, edo bestela lanik barik eta janaririk barik geratuko ziran.

Orain ez gagoz egoera orretan eta askerik gara euske-ra ikasteko baña nik noizean-bein nire buruari itauntzen dautsot:

“Alderantziz izango balitz, ez genduke ariñaigo ikasi-ko?”

Eta, zeintzuk dira euskaldunbarrien oztopoak, ikasten dana ez erabilteko? Beti edo ia beti, bardiñak izaten dira: Lotsea, bildurra, kikilkeria... Baña gauza orrek menperatu bear doguz onela ikusten:

— Lotsea zergaitik? Gure aurrean dagozanak ez daki-lako? Berak gure badau, ikasiko dau eta gura ez badau, berarentzat txarrago.

— Beldurra zergaitik? Asko ez dakizulako eta ondo ez dozulako esango? Zure aurrean dagonak ondo badaki, esaiozu lenengo, zu ikasten zabiltzala eta astiroago esa-teko.

— Eta kikilkeria? Ori kentzeko oitura artu bear dozu zure ikaskideakaz eguneroko ikasitakoa erabilten, olan egiten, errezenagaz oituratuko zara eta ondo esaten, kikil-keria joango jatzu.

ZURE SABEL ERTZAK

Zurea ez danik zer goralduko lur ontan?
Gurutzean lez, urrutiko ogean natza
goralduz illargi bakartien irrisetan
zure sabelaren ertza.

Aragi usaidun aranteko kabelin.
granada goxo, elduarren ago ler-barri.
Dardar, aginka samurreko masustra-mamin.
Or nik murgil maite-larri.

Arrainak uretan antzo murgil eta mugil
noiz biok bat egingo sakonaren astunak.
Zure barne muietako uyolak narabil,
zure gunaren sakonak.

Bion leen alkar joa dot dardaraz oroi,
illargia aginka ausi gendunekoa,
izarak ostikoka, ogean lore-murgoi.
Joka gendun itxasoa.

Belardi goxoa, ule abaroa sutan.
barne sakonetan daroat zure aginka.
Putzu zaut, or murgiltzen leize zokondo ortan
itsu ta zorabioka.

Zure erraietara naroan mentzulo zaut.
Auntz-orri arteko ezkutuko argizarra.
Orrek barrenengo barrenetik lapurtu deust
borbor dan maite aparra.

Zu zaitu eremuak baratzik maiteen,
kabelin ta jazminek zuregan marapillo;
zeuri jarraika dozuz ilots eta zoroen
millaka gizaldi pillo.

Lurraren biotz, zu zaitugu munduaren zil,
izarbelek edo, oro dozu inguruka,
eguzki-nini, sagarondoko lore pipil,
eder betea irrika.

Itxas aldera leiatil, erio gardenenaren atarte,
sakonago ta urdinago egunik egun.
Aren arnas lurrinak edatzen betirate
su, zu ta nirarteko gun.

Iruntsi naizu, zulo eme, ene illobi.
Estapel arri bekizure sabel beroa,
zure aragia ol, zure zila arrobi,
betirauna zure alboa.

Murgil nik zuregan, eberdi betean antzo,
urpeko odolez argi dan eberdi sakon
eta zuloak itoaz, itxasoa altzo,
oyua eginik gizon.

Zure erdiaren erdian ni izar aske,
biok bi erestun eginik zuk lotzen alkar,
zu zeu nire jaube, gu biok eginik kate,
betiraunean maite gar.

Euskeraz: BIDAGUREN

MIGUEL HERNANDEZ (Poemas últimos)

EUSKALERRITIK MUNDURA BEGIRA

Jausi da Txernenko. Igo da Gorbatxof. Eriotzak bota dau Txernekoko; Alderdi Komunistaren buruzagiek jaso dabe Gorbatxof. Ez bataren erortzean ez bestearen gorakundean, ez dau erriak ezer ikusirik izan. Errepublika Sozialista Sobiet'darren Alkartean erria ez bait da ezer.

Totalitari diran Laterrietan Agintaria da erria. Ez, erriaren "ordezkaria" bakarrik, "erria bera" baizik.

Gizakumea, burua da; gaiñerako guztia buruaren gorputza besterik ez da. Buruak agintzen dautson eran ibiltzen da gorputza. Gorputzak ez dau pentsatzen; Buruak pentsatzen dau. Edo, obeto esateko, buruaren bidez pentsatzen dau, eta itzegiten dau, gorputzak.

Franko'ren denboran, Franko'ren adimenaren bidez pentsatzen eban Espaini'ko erriak, eta Franko'ren agoaren bidez itzegin. Orixe bera gertatzen da Kominist-Laterrietan.

Ta an erria ezer ez ba'da, gutxiago da oraindik langilledia, "proletardia". "Proletarien Paradisuan", Proletariet gaueko auntsaren eztulak baiño gutxiago balio dabe.

* * *

Lurralde zabala da E. S. S. A. Ludian zabalena: 22.275.000 kilometro laukoi. (10.000.000 dauz Kanada'k; 9.363.396 Amerika'ko Laterri Alkartuek).

Amabost Errepubliket osotzen dabe Alkartea. Izenez, izenez bakarrik, iareak, "independentet" dira Errepublika oiek, baiña agindu, Alkarte aren zabalero guztian, Alkarteko Alderdi Komunistak bakarrik agintzen dau. Eta izenez bakarrik onek ere!, egiazko Agintari bakarra Alderdiaren buruzagia bait da.

Lenin'ek, agindu zien Errepublika oiei danei iaretasuna, "independentzia". Badu Errusierak, Errusi'ko izkuntzak, erri baten burujabetasun osoa agertzeko gure "askatasuna" edo "iaretasuna"ren antzeko itz bat; baiña Lenin'ek, "independentzia" erabiltzen zuan; aren asmoa ez bait zan erri bakoitzari bere burujabetasun osoa ematea, erri oiei komunismoa ezartzea baizik.

Lenin'en bideari jarraituaz gure komunistek ere ez dabe "askatasun" izenik erabili nai. Orregaitik, "Independentzia" erabiltzen dau bi zatitan ebakitako alderdi bat bakarra dan "Euskadiko Ezkerra-Herri Batasuna"k ere.

Orain badakizu zer dan Alderdi bikoitz orren "independentzia". Ez da Euzkadi, ez da edozein Erri, beste Erri baten menpetasunetik "independiente" izatea; proletariet kapitalismuaren lokarrietatik "independiente" izatea baizik. Zeratarako? Lenin'en, Stalin'en edo Gorbatxof'en diktaduraren menpera jausteko!

* * *

15 dira Alkarteko Errepublika sozialis-sobiet'darrak:

Errusi; danetan aundiena, Asi-aldeko lurralde geinak berak iruntsi dauzalako. Sortaldean Japoin'ekin eta Sartaldean Alemani'rekin dauz mugak Errusi'ko Errepublika S.S.-k. Bera bakarrik, ludiko errialderik aundiena da: 17.100.000 kilometro! eta 150.000 biztanle.

Errusi'ren iparrean dagoz Letoni, Estoni eta Lituani, azkeneko guda-aurretik Laterri iare ziranak. Guda amaituta zanpatu zituan Alkarte komunistak, Stalin'ek ala nai izan ebalako. Erriari zanpaketa ori zer iduritzen yakon itaundu gabe, jakiña!, erriak iñon ere ez bait dau komunismoarentzat baliorik! Abertzaletasuna bizirik dago oraindik an, baiña abertzale agertzen dan guzia, Siberi'ra bidalia izaten da.

Gorde eizue ori gogoan EE-HB'ri autarkia ematen dautsazuen demokraziale guztiok!

Errusi'ren sarkalderuntz dagoz Biolorrusi edo Errusi Zuria, Ukrani eta Moldabi (Armeni kendu ezkerro, txikiena au -33.700 kilometro-, baiña, kilometro oien neurrira, danetan jendetsuena: 3 milloi biztanle). Ruman'i'rena zan guda-aurrean. Stalin'ek sartu zuan Alkarte-pera. Erriak ori nai eban? Inporta al dau erriaren naiak komunismoaren giroan? Kaukas-mendien egoan dagoz Georgi, Azerbaiyan eta Armeni, lurrez eta jendez txikiena azkeneko au: 30.000 k.l., 2.000.000 biztanle. (Euzkadi'k 20.000 k. l. eta 3.000.000 biztanle dauz). Georgi'n, ia urte bete egon da nere ikasle izandako bat. Kaukasi'ko Errepublika aietan oso-oso bizirik dagola abertzaletasuna, esan daust. Abertzaletasuna, eta askatasun osorako, guk "independentzia" entzutean ulertzen dogun "askatasun osoaren" zaletasuna! Baiña ez dautse Komunismoak "independentzirik" emango. Itz orrek ez dau zentzurik komunistentzat. "Independentzia badabela erantzungo dautse: Lenin'ek eskeiñi eutsen "independentzia!" EE-HB'k eskeintzen dauskun "independentzia!"

Asi-aldean doguz Kazakstan (2.756.000 k. l. eta 9 milloi terdi biztanle), Uzbekistan, Turkemenistan, Kirgistan, eta Tadzijistan. Errepublika auek danak, mongolitarak dira endaz eta izkeraz, eta mahometarrak sinispidez.

Munduko Errialderik aberatsena da E. S. S. A. Amerika'ko Iparraldea baiño aberatsagoa. Alata guztiz, txiroki bizi da ango jendea. Baiña ez da ori, guretzat, komunismoaren etsai izateko, arrazoi baliozkoa. Lortuko dau Alkarteak bere jendearentzako aberastasuna, eta orduan, Alkarte artako jendeak izango dira ludi guztian ondoen bizi diranak. Baiña orduan ere komunismoa zearo gaitzesgarria izango da, gaur bezain gaitzesgarria, jendeen eta errien askatasuna zapaltzen daulako!; "ez bait da gizakumea ogiz bakarrik bizi".

LATIEGI'TAR BIXENTE

LARREA, BILBOTAR OLERKARI TA GOGOETARIA

Zegaitik eztoigu orain arte ezagutu Larrea'ren nortasuna ta bere adimenaren balioa?

Beti lez, Kultura gaiak, batez be giro batzuetan ardura gitxi emoten dabelako.

Gregorio San Juan Bilboko "El Sitio"-ren lendakariak diño: "Nik beti egin dodaz alegiñak Larrea ezagutu daite-n. Nire lagun andia izan zan eskutitz bidez lenengo, ta gero "Gernika y Picasso" bere idaztiaren aurkeztea egiteko Bil-bo'ra etorri zanean berbera ikusi ta beragaz berba egin ta obeto ezagutu nebanean".

Izan be, norbait Bilbotar izanda gizaldi XX'eko olerki andiki goienetariko egundoko jakin-eza eukitea ulergatxa egiten da.

Alan be, geure geurea da ta geureganatu egin bear dogu.

Zalantza barik, bere idazlanakaitik euskotar entzute sakonakoa eta lur zabalean andienetarikoa dogu.

* * *

Larrea'ren idazlanetan zein izango ete da garrantzitsuena? Olerkari muiñez ezautzen dogu, olan asi zan-eta. Baiña irrati-aria XXII gizaldi izatasun etorkizunetan ipiñita eukon. Trebetasun onek bere lagun garrantzidunen artean emoten eutsan eragite andia. Alberti'ren idazti "Sobre los Angeles"ean, Federiko Garcia Lorca'ren "Poeta en Nueva York"en León Felipe'k idazti bat iñoana" Larrea olerkariaren Irakasle orain ta etorriko diranak argiratu eban. Ames-zale ta irudikor zan, Larrea, norbait eun urte gitxienez olerki-poesiaren etorkizinean aurreratzen dana. Baiña onelango olerkari izanez, zelan ulertu geinke? Bai, eta ondo baiño obeto. Vitorio Bordini'ren liburuan Larrea ezautzen da euzkotar egin-zale barruko (surrealista) Prantzi bitartez Euzkadi'ko olerkariengana datorrena.

Larrea gizon gustiz apal ta tolesbagea izan zan. Erbestetua izanik be, eskakizun gitxi eukan. Berea egin eban au iñoan Moreno Villa'ren esakunea: "Nire aberria dago liburu batzuk, gaindegi bat ta txinela edo etxeko oski batzuk dagozan tokian". Larreak baekian bizitzea bere inguruko zertzeladaetara eratzen. Olantxe idatzi eutson bein bere lagun Jose Manuel Castañón'i: bizitzea, alan da gustiz be, garbia ta ederra da, diñotzu oar'ikasi ezperientzi gogor-gogorak euki dauzan ta daukazanak".

Larrea beti egoan etxeraturik bere adimen zeregiñetan kulturaren olinpo andikietarik besteren. Artu-emonez surrealista ta dadaistakin Paris'en ibilli arren, ta gero Mejico'n kultura arloetan "España peregrina" ta "Cuadernos americanos" aldizkarietan idazten ta antolatzen, alan da gustiz be Argentina Cordoba'ko Eskola Nagusi Unibersidadera aldentuten da, ta emen bere azken urtean andeatu, iraungitzen dauz oso-osoz bere egintza idazlanari lotuta. Eta bere olerkiari buruz zer ezautzen da? Etzan argiratu ezer "Versión celeste" arte bere gurari aurka, erderatuta prantzestik, eta Gerardo Diego'k imiñita "Carmen" aldizkarian.

* * *

Eta zer esango dogu bere literatur aldexkatzaz?

Bere idazkiak poesi sakontasun gora andikoa daukie. Gregorio San Juan'ek idazlan baten iñoan: "Larrea zala giza-zale andi, olerkari, arkeologu, ertiaren azterlari, Bilbotar gogoetari andiki au Argentina'n biztanle". Bere liburu ederrak "La espada y la paloma", "Razón de ser", "Guernica" dira.

Gure Larrea eder-santzu, estetikatik etikara eldu zan. Eta olantxe beragan egiztu zan Unanumo'k beste euskotar-euskaldun entzutensuak esaten ebana: "Azterpide etikaren nagusitza, bere nai-eza eder-sentzu ren oitura moralbakoa ontzat artzen iragarri, jakinerazoten dau euskotar jatorra". Larrea aldentuten zan politika arazoetatik, ez ezik bere Franko'ren aurka burrukarako" España peregrina. "Komunistek liburuan be azterkatzen eutsoen. Ortik Neruda ta beste batzuekaz eztabaidak. Esaten eban sarri-askotan: "Eder sentzutik etika'ra".

Berarentzat literatura eta bizitzea gauza bat da. Izatez be, poesi olerkiak berak ulertuten eban lez neurri norberarena ezerezen dau. Larrea ezi izan zan sendi-famili jainko-zale iya zalekeriraño. Augaitik diño: "Olerkian sartu nintzan bateren bat erlejiñoan sartuko ba-litz lez". Onelango berbak erabilten eban: "Norberaren eriotza", "gogoaren birrerospena", "leizearen bakartadea"; bere gogamena noraño ete da araudun, neurriduna ta zelalango literatur gaiaraño?

* * *

Larrea zearo anditzarra da adimenez, gustiz ederto eratua. Bere edozein idaztik bere baietzak argibidezten dituan aitamenez beterik dago.

Lenengo gizaldien kristautasuna orokor ezautzen dau. Erakunde giza-zale ta eredu-zko goiena eukon. Bere irazpen guztiak edesti-istoriaren gaiak zeatz ezautzean eutsi ta sendoturik dagoz.

"Norberaren eriotza diardunean, norberaren gainditzeri dagokio jakintza neurriz.

Larrea beti itxaropenez bizi zan Ameriketarren etorkizunean. Askotan ziarduan Mundu Barriaren irazatetzaz lengo aldakuntze ta gainditze bidez. Gai oneri buruz Mexiko'tar gogoetari Vallejo'gaz bat egiten eban.

Baiña zergaitik izango ete zan 32 urtean olerki arlotik aldentutea? Bear bada ez zalako gauza berba neurriak bertsoak idazteko. Franko'ren España'ko gudatik Paris'era iges eginda, emen urten yakozan ain miragarri goi-argizko gogamenak.

KULTUR-ETXEA (Ondarroa)

KONTAKIZUN LABURRAK

Gaiez, tokiz, gertaeraz edo bizitzaz Ondarroa'ri ikutuz.

Sail bitan banatuta: Danentzat eta Ikasleentzat.

DANENTZAT.—10/20 folio bitarteko lanak.

Sariak:

- | | |
|--------------------------------|--------------------------------|
| 1. ^a 50.000 peseta. | 5. ^a 20.000 peseta. |
| 2. ^a 40.000 peseta. | 6. ^a 15.000 peseta. |
| 3. ^a 30.000 peseta. | 7. ^a 10.000 peseta. |
| 4. ^a 25.000 peseta. | 8. ^a 10.000 peseta. |

Guztira, sail onetan, 200.000 peseta. Lan oneik makinaz idatziak izan bear dira, folio orrietan, alde banatara, tarte biko, orrialde bakoitzean 33/35 lerro erabiliz. Bestelako orrietan idatzi ezker, neurri orreitaratu urreratu bear dira lanak.

IKASLEENTZAT.—12/16 urtekoentzat.—3/6 folio bitarteko lanak.

Sariak:

- | | |
|-------------------------------|--------------------------------|
| 1. ^a 6.000 peseta. | 6. ^a 1.000 peseta. |
| 2. ^a 5.000 peseta. | 7. ^a 1.000 peseta. |
| 3. ^a 4.000 peseta. | 8. ^a 1.000 peseta. |
| 4. ^a 3.000 peseta. | 9. ^a 1.000 peseta. |
| 5. ^a 2.000 peseta. | 10. ^a 1.000 peseta. |

Guztira, sail onetan, 25.000 peseta.

10/12 urtekoentzat.—2/4 folio bitarteko lanak.

Sariak:

- | | |
|-------------------------------|--------------------------------|
| 1. ^a 5.000 peseta. | 7. ^a 1.500 peseta. |
| 2. ^a 4.000 peseta. | 8. ^a 1.500 peseta. |
| 3. ^a 3.000 peseta. | 9. ^a 1.000 peseta. |
| 4. ^a 2.000 peseta. | 10. ^a 1.000 peseta. |
| 5. ^a 2.000 peseta. | 11. ^a 1.000 peseta. |
| 6. ^a 2.000 peseta. | 12. ^a 1.000 peseta. |

Guztira, sail onetan, 25.000 peseta.

Ikasleen lanak eskuz nai makinaz idatziak izan leitez, baiña garbi egiñak.

Baldintza orokorrak

Lanak argitaratu bakoak izan bear dira, originalak, ez beste izkuntzetatik itzuliak Euskeraz idatziak.

Egile bakoitzak gura aiña lan bialdu leikez, baiña bakoitzaren bat bakarria sarituko da.

Ikasleen lanetan, gain-gaiñean agertu bear ko da zenbat urte daukazan egilleak. Lan bakoitzaren iru kopia bialdu bear ko dira, izenpetu barik idazkazal edo sobre baten, eta barruan, beste sobre itxi baten, gaiñean lanaren izena bakarrik eta barruan egillearen ezaugarriak, eta ikasleak eskolaren izena.

Epai maia Kultur Etxeak izentatuko dau eta bere erabagia alda-eziña izango da.

Epai maikoak, ikasle saillean, uste izango ba lebe saritzeko asmoa dauken lanak beste norbaitek egiñak leikezala, eskubidea eukiko dabe egilleari deitu ta euren aurrean beste lantxoan bat eragiteko.

Lanak bialtzeko epea Apirilla'ren 30'an amaituko da. Bialtzeko zuzenbidea: Kultur Etxea —Artabide 13—Ondarroa.

Sariak banatzeko jai berezi bat egingo da. Jaubetasuna egilleena izanarren, Kultur etxeak nai dabenean argitaratzeko baimena eukiko dau.

ANTZERKI ERREZAK: ONDORENA

Iru sailletan banatzen zan sariketa au:

Bakar-izketak,

Alkar izketak

eta Antzerki errezak.

Danetara 41 lan agertu ziran.

Lanetatik ugarietak, gipuzkeraz egiñak izan dira: 21. Amabost bizkaieraz eta bost batuan.

Epai mairako iru euskaltzale ezagun izentatu ziran: Julia Berrojalbiz, Itziar

Garaizar eta Maria Rosario Igeregi.

Oneik, euren erabagia emotean, saila izan zala, esan eben erabagia artzea, baiña jarraiko oneik aukeratu zituen

BERTSOETAN

UDABARRIA

Udabarría aurrean dogu,
guztia alaitzen daula.
Illuna t'otza igeska doaz
pozik ixten gaituela.
Ingurukoak agertzen dabe
arø ona laster dala.
Olako giroz, guri biotza
geratzen yaku mazala.

Aro onegaz, txoriak biztuz,
asten dira maitakari;
laster yatorkuz txori txikiak...
Dana dirudi mirari!
Arrituz gagoz eta poz-pozik
begiratzen txoriari.
Txoriak doaz abitik kanpo
t'agiri dira ugari.

Baita be lorak urtetzen dira
ederrak ta usaintsuak,
gozotasunez betetzen dabez
guztientzat inguruak.
Udabarría ein dauanantzat
jasoten doguz txaluak;
ezkertuteko Jaun aundiari
eiten dautsoguz kantuak.

Udabarríren antzeko dira
gure ume ta gaztiak;
eurak benetan aurkitzen doguz
eder ta zoragarriak.
Txoriak, lorak eta landarak
dira euren irudiak
t'erizten yakuz euren irriak
eder ta beti barriak.

Gaztea dogu adoretsua,
ez dau ikusten eziña.
Edozelango lan egitean
auxe bear dau: ekiña.
Gaztaroako odol beroa
dau lagun ta, dana eiña,
Beti olantxe, aspertu barik,
euki badau zeregiña.

Gizon aroa lan sasoiá da,
laguntasunaz erreza,
badauko beintzat, lan egiteko
dirudunaren babesá.
Osasuna ta bakearekin
beteta dauka amesa.
Lanik ez badau, txarto dau dana.
Ez dau besterik: bapeza.

Udabarría dogu lurrean,
baita beste bat zeruan.
Emen ez da miñ edo larririk,
dana poza, betikuan.
Zorion utsa izango dogu
poz-leku bedeinkatuan.
Lurrean larri gagozanean
artu daigun au goguan.

Udabarríren antzekoa da
gorputzen biztuerea.
Itxaropen auk, danai damosku,
samiñean, adorea.
Guztiok eder, guztiok gazte,
gazte, baita agurea.
Olan artuko dabe saria,
danak, bakoitzak, berea.

MATAI ARGINTXONA



ETSAIAK?

Gaueko amabiak.
Zaratak ein barik mobidu da trená.
Bagoia dua utsik, argiak motelak;
ez aiztu, une baten, gagozala gerran.
Deuts-menperatutik azke-aldera nua.
Azken aginduak, diru pillo itzelaz
daukodaz kolkuan, eta orrexegaitik
neure bastertxuan, larri naz benetan.
¡Muga igarotia! Auxe da txarrena;
antxe alemandarrak kontrolatzen dabez
duazanak trenan.

Emen geldokia. Bultzia lotu da.
Lenengo atexutik sartu da deutstarra.
Niganantza dator. Entzun: taupa, taupa...
Begiak eratsi, erdi lo bezela,
baña barrenian biotza taupaka...
Orra, orlegi-prakak oski baltz ganian.
¡Eztaitela lotu neure neure aldian, Jauna!
Aurrera dua ta, atetxutik jatsi.
¡Zelako arnasea luzia, sakona,
arrisku igarota...
Baña praka orlegi, oski baltz ganian

neuganantza etorten
begi itxita bere, beti ikusten dodaz.

Bijaramonian,
eskarrak emoten ba nua elizara.
Kepa deuna eleiza, Lurdes'en ur dago.
Emen Frantzia'n aldez ildekoen zelaya.
Ontxe asten da meza;
Jaupari ule gorri ortxe dago aldarán.
Eraspen andiaz, astiro ta sutsu
otoi-eskariak; ta bere inguruan,
astiro ta sutsu, erantzuten danak.
Confiteor esaten, begiak apaldu,
ta antxe ikusten dodaz,
Jantzi-zuri ertzan xerraen azpian,
oski baltz ganian
aleman gudari prakak orlegiak.
Aleman jaupari... ¿ezta zeure etsaia?
Ez, ba. Orain, barriz, biotza taupaka
oroitzen naz itzak:
"Neure Aitaren naia, egiten dabenak
dira neure anaiak!"

UTARSUS

EDUARDO IBARGUEN

Nor zan gizon au?

Getxon eukan etxe baten bizi zan, baiña idazgailluen denda eder bat eukan Bilbo'ko Bide Nagusi kalean, enparantza eliptikorantza goazela eskumaldean.

Balmaseda Bizkai'ko errian jaio zan 1884'ko urrillaren barruan. Eun urte egingo ebazan ba igazko urrillean. Gure Aldundiko Lendakari dan Makuak zerga-ordaintzaillerik zarrena dalako burdiñezko domiñea emon eutson.

1978'an, Salerosketa-artekarieren Batzarraren erabagiz, Laterriko Salerosketa-artekaririk zarrena dalako, antxiñekotasun-saria emon eutsen.

Zelan asi zan salerosketa lan onetan?

Irakasleak emoten eutsoezan liburuetan ikasten eban, bere anai-arrebai lagunduaz batera. Beragaz bederatzi neba-arreba ziran eta bera zarrena, guztiak ama-alargunaren ardurapean zirala.

* * *

Balmaseda bere errian Auzitegiko Idazkari egin zan eta berak esaten eban lez, ba-eukan naikoa zeregin erriko jokolari, griñadun, eta gizon okerren aurka, batez be lan-saria eskuratzen zan egunetan.

Balmaseda'n soinketa edo gimnasia eratu eban eta bera be indartsu ta soin-zabal biurtu zan, baiña beti bake-zale. Alan be, bein baten Bilbo'ko Bide Aundia kalean gizon bateri, au astuna izan arren, emotekoak emon eutsozan. Ori zala-ta, ango epaikariak dei egin eutson eta beste gauzaren baterako izango zelakoan joan zan eta ondo egin ebala ukabilkadaz gizon oker aregaz ekitea entzun eban baretu egin zan.

Batek itaun au egin eutson:

Ete dago alderik aldi aretako jokabideen eta gaurkoen artean?


— Alde aundia diño berak. Orduan gauzak benetan artzen ziran.

— Zein izaten zan zure zeregiñetan agertzen zan matrakarik aundiena?

— Lantegietako langilleai euren eginkuzunak barriztau egin bear zirala ulertu-azotea. Ez eben onartzen ezelako aldakuntzarik. Nik Kardez arauak Power ol-antzekoekin oraingo zenbatzaille edo konputadore antzekoak ziranak aurkezten neutsezan. Zer izango zan lan-erak aldatzea bururatu egizu. Nik orain arte (orain, jaikiña, ezin) beti bear egin dot adar-otsetik adar-otsera eta soiñeko sasoi zaintzen dot egunero 120 mailla gelditu barik igoten.

Ibarguen amabi urte euskazala asi zan bearrean bere gurasoak eukan kafe-etxean. Amasei urtekoa zala ume-zurtz geratu zan, len esan dogun lez zortzi anai-arrebagaz. Il-zorian amak oneik jagon egizala eskatu eutson: Kontuz, Eduardo, nire semea; ez egiezu agirikarik egin; maite izan egizuz errubako aingerutxuok". Eta berak, lan eginda, aurrera etera ebazan.

Baiña kafe-etxea ta gurasoak emon eutsoen gas-lantegitxua ez ziran bare arloko lantegiak.



Ogei urte eukazala, arazo orreik baztertu eta Ameriketara joan zan.

Ara eldu eta an zer? Zenbat denpora an egin? Noz biurtu? Ez dakigu eta onetzaz berak ez diño ezer. Ordain-agiririk ez dau iñoz biurtu eta diru-etxeai ez dautse iñoz iruzurrik egin.

Berrogei urtetan bere idazkari izan dan Luzia'k auxe diño: "Ori egin baiño erosleak galdu gurago izan dau".

* * *

Eduardo Ibarguen beti jazten da egokiro eta —"ni beti izan naz gizon galanta" esaten dau, bertso artean eta irri-barreka.

Ez jakoz atsegin tabako-orria erreten daben emakumeak.

Gaurko Bilbo baiño antxiñakoa maiteago dau. "Gaurko Bilbo'tarrai ez jake atsegin lan egitea, diño, eta lan egin barik ez goaz iñora, txirokeri, griña-txar, lo-bedar eta mozkorkerietan usteltzera baiño. Bilbo ezer izan ba'da orain-arte bere ekiñaldiagaitik izan da eta gero be orrelan izango da."

Beste esaldi jakintsu au be esan euskun Ibarguen'ek: Gizonak ezagututa trebetasuna ikasten da baiña ez irakatsi, orretarako experientzia bear da".

Liburu-zalea zan Eduardo eta olako zerbait esaten eban tamalaz: "Jakín-ezak galtzen dau mundua".

Gaur iru seme eta amalau biloba daukoz, Azkenengo zazpi urteak ez dauz izan osasuntsuak.

Eldu zan adiñera eldu ba zan, bere bizitza latza eta "filosofia" gaz artua izan dalako dala esaten eban. "Ni beti nago pozik, ez naz edatun, ez naz jokolari, ez dot erreten txokorrik, Habana'n egon nintzanean be ez neban olakorik egiten an izan nintzan lau urteetan".

Oraintsu joan jaku Eduardo Ibarguen (G. B.).

LETONA'K

MAZARREDO

Irakurle zintzoa! Iñoiz igaro zara, katedralerantz, Bilbo'ko kaletik Bidebarrieta zear?

Baietz erantzuten ba-daustazu, kale orretan Mazarredo izeneko itxas-gizon ospatsu bat jaio zan etxea ikusi zeinkean, armarriz erakutsia.

Goazen Mazarredo'ren kondaira-bizitzako argibideak jakitera.

1745 urtean esan dogun etxean jaio zan Bilbo'n eta 1812'an il Madri'len.

* * *

Azken aldietako itxas-gudaketan Gudalbururik argitsuena dogu. Berezko gogo kementsuari ikaste sendo ta oarpen gogaketa sakonak batu jakozan.

Ondiño itxas-zaintzaille bakarrik izanda, 1761'ko Jorrailla'ren 13'an, bere erabideak jarraituz, itxas-gizon zarrago eritxien aurkazkoak, Andaluz izeneko itxas-ontzia ez zan ondatu ondartzeta Mata'ko aitz-artean.

Egite onek eta antzeko batzuk aginpide andia emon outsoen itxas-lagunen artean; eta amabi urte geroago otseintzan igarota, Kartagena Eskualde'ko Gudalburu'aren laguntzaille izendatu eben.

Naigarri egoera euki arren, ikaste ta jakite geiago egiteko, korbet-ontzi Venus'en itxasteratu egioela eskatu ta lortu eban.

Itxas-ontzi au Juan de Langara'ren aginpidean 1772'an Filipinas'era joian.

Itxas txango onetan Mazarredo'k Ludiko luze-zabalgo araudietzaz jakintza andiak egin ebazan; eta abade Lakaille'ren liburu ospetsua itxaskuntza gaiaz irakurri barik, ak esan ebazanak igarri zituan, asmo askotan bat eginda.

Bere guda-egintza arriskudun, bere zintzotasuna, zentzuna ta lanerako aal-izate ta trebetasunagaitik, Cadiz'ko

Itxas Zaindari Lagundi'ren Alferrez agintaritzta emon eutsan erregeak.

Nondik aterako eban astirik beste geiago egiteko?

Alan be, gaztediarentzat itxas-ikaskaiak idatzi ebazan, eta teoriatz ta egikeraz berak azaldu ta irakatsi.

1779 urtean Gaston'ek aginduriko guda-ontzidiren Gudalburu izendatua izan zan, ta urrengoan On Luis de Cordoba'k guda-ontzidiren eginkizuna leporatu eutson.

Ontzidi onegaz ausarti egitada bat zertu eban ingaladar ontzi lerroen arrapatzeaz.

Urte onetan Mazarredo beraren trebetsunagaitik etziran ondatu prantzez españar ontzidi bateratuak Estaing Konde'ren aginte-arinkeria zalata. Oneitariko gauzetan itxas-uda arazoetan Mazarredo'en buru argitsua Artois'ko Kondeak eta Prantziko errege Karlos X'enak autortu eben zintzoro.

Gure Mazarredo etzan bakarrik gauza itxas ibillaldi ta gudetarako, baita legorreko zeregin ta politketan be. 1799'n Brest'era urtenda, Prantzes guda ontziatz, au itxita Federiko Gravina'ren aginte-pean, Paris'era eldu zan Directorio'gaz burupidea eraztu ta antolatzeke.

Beingoan Napoleon Konsulgo'ra etorri zala-ta, Napoleonegaz diardu Españarrekin maltzurkeria ebillelako.

Mazarredo'k Napoleon'en kaisar-zale ta jauntzar asmoak ezereztu gura zituan. Baiña Madrid'en egoanez Paris'ko aginte menpean deitu eutson ta bialdu Cadiz'ko Nausitza Orokorra artu egian.

Emen gauza onik ezin egin eukeala ikusita, Bilbo'ra bere jatorrira etorteko eskatu eban. Eskari au onartu eutsoen, eta 1802'an etorri zan Bilbo'ra. Gizon gustiz burutsu ta beargiña izanez, itxaskuntzari buruz sei edo zazpi liburu eder itzi euskuzan.

EGILUZE'K

ZER

ALDIZKARIA

- ILLEROKOA (MENSUAL)
- BIZKAIERAZ IDATZIA (EN BIZKAINO)
- ERRI-JAKINTZAREN GAIK (MATERIAS POPULARES)
- IRAKURGAI ERREZ-ERREZAK (LECTURA FACIL)
- ARAZO SAKONAK AZTERTUTA (ANALISIS DE TEMAS)

ARPIDETU ZAITE!

ZER
EUSKERAZALEAK

Colón de Larreátegui, 14-2.º - BILBAO-1

“EUSKERAZALEAK” IPUIN-SARIKETEA

EUSKERAZALEAK Taldeak, igaz lez, ipuin-sariketea eratzen dau. Sariketa onetara sartzeko, oneik izango dira baldintzak:

- Euskera biziz idatziak izan bearco dabe. Erriak darabilen euskalkietariko bat erabilliaz idatziak.
- Ipuin itzulpenak ez dira onartzen.
- Luzerea, iru orri-alde, bitarte bi lerroartean dituela.
- Epea: Jorraillaren azkenerako gure etxean (Colón de Larreátegui, 14, 2.^a eskoia) izan bearco dabe.
- Sariak: Iru sari izango dira: 1.^a 40.000 pezeta; 2.^a 30.000 pezeta eta 3.^a 20.000 pezeta; 4.^a 10.000 pezeta.
- Ipuin sarituen jabe “EUSKERAZALEAK” izango da eta ZER gure aldizkarian argitaratuko dira. Sari barik geratzen diranak, idazleen esku geratuko dira eta eurak billa etorri bearco dabe.
- Oitura dan lez, ipuiña izen-ordeaz bialdu eta izen-orde ori gainean daroan azal baten barruan sartu izen-ordea ta izena batera daroazan txartela.
- Maikoen erabagia, uztailleko ZER'en agertuko da.

ZER Aldizkarian eta DEIA egunkarian iragarri zan lez, Euskerazaleak Alkar-teak ipuin-liburu bat apaintzeko marrazkien sariketea eratu eban.

Aurkeztu diran lanak aztertu-ondoren au izan da Maikoen erabagia:

SARIA: 100.000 pezeta MARIA PIA GORI'ri.

Aurkeztu diran lanen erti-balioa ikusita, maikoak lau urreratze-sari edo aitamen ezarteko eritxia eskiñi dautse eta eritxi ori onartu egin da eta oneik dira urreratze-saria irabazi daben marralariak:

1.º Urreratzea: Carmen Elgezabal

2n. Urreratzea: Alazne Rivero

3n. Urreratzea: Carmen Olabarri

4n. Urreratzea: Dolores Peña ta M.ª Carmen Peña

Zoriona irabazleai!

EUSKERAZALEAK



Colón de Larreátegui, 14 - 2.º dcha. BILBAO-1

Gure alegiña Bizkaiarentzat da.

Gaur, beti lez, gure erriaren billaketa-lanari laguntzeko gagoz.

Gaur, aurrera joteko sasoian, itxaropena oztopoen gaiñetik jarrita,
otseintza ta laguntzarako gure gogorik onena,
barriro ta geiagotuz sortzen da.

Gaur, eta egunero, Bizkaiaren izena omentsu eta,
batez be, emoneko berba lez daroan
Aurrezki Kutxaren lana, indarra ta amesak, ez dabe utsik egingo.

Berari erantzuten jarraituko dogu.

TXURRUKA'ri oroitarria Areetan.
Itxasoaren oldarra gelditzen,
gizonaren neurribako
alegiña:



BIZKAIKO
AURREZKI KUTXA



CAJA DE AHORROS
VIZCAINA

Bizkaiko Foru Diputazioak sortu eta bultzatutako Erakundea.

**BIZKAITARRAI
BIZKAIERAZ
86n. ZENBAKIA
ORRILLA
(MAIATZA)
1985**



**SUKARRIETA:
UMEENTZAT
EGON-LEKU
ZORAGARRIA**